



**Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2021eko maiatzaren 7ko EBAZPENA, 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda argitara ematen duena.**

---

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera, 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda urtero birbarematzeko prozedura egin behar da.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez, aipatutako birbarematzeko prozedura ireki zen.

2021eko martxoaren 11n argitara eman ziren ordezkogaien fitxak, eta 2021eko martxoaren 11tik 22ra (biak barne), epea ireki zen aukerak aldatzeko, merezimendu berriak aurkezteko edo nahi ziren alegazioak egiteko.

Epe hori pasa ondoren, ordezkogaiek eskatutako aldaketak eta aurkeztutako dokumentazioa eta alegazioak aztertuta, 2021/2022ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda ematen da argitara. 2021eko martxoaren 5eko ebazpenak seigarren atalean azaltzen dituen egoeretan dauden pertsonak integratu dira zerrenda horretan. Bestalde, 2021eko martxoaren 5eko ebazpenaren zortzigarren atalean azaltzen den egoeran dauden pertsonak zerrendetatik at geratu dira.

Aipatutako zerrendan aukeren aldaketak, onartu direnak, eta aurkeztutako merezimendu berrien barematzea sartzen dira. Halaber, zuzentzen dira ordezkogai batzuek ordezkapenak egiteko aukeretan eta merezimenduak barematzean ikusi diren akatsak.

Horregatik,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehena.-** Argitara ematea 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin-behineko zerrenda.

**Bigarrena.-** Zerrenda horiek <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkontza-langileak/> Ordezkapenetarako izangaiak / Irakasleak edo Irakasleak ez diren langileak (kasuaren arabera) / 2021-2022 ikasturtearen birbaremazioa web orrian eta irakaslegunea ingurunean ([www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus)) emango dira argitara, eta erabiltzaile eta pasa-hitzaren bidez sartuko da.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioak egiteko epea irekitzea 2021eko maiatzaren 10etik 14ra, biak barne. Epe horretan bertan zuzendu ahal izango dira aurkeztutako dokumentazioan edo hasierako birbaremazio-epean egindako eskabidean egindako akatsak.

Erreklamazioak telematikoki egingo dira, [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) helbidearen bidez (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) – Administrazio-izapideak – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2021-2022 ikasturtea – "Erreklamazioak eta/edo zuzenketak". Azken atal horren barruan:

- "Dokumentazioa" eta/edo "Kontserbatorioak/Dantzerti" erlaitzan, birbaremazioaren hasierako epean entregatutako eta erregistratutako dokumentazioa kontsultatu ahal izango da, eta lerro bakoitza sakatzean "Administrazioaren erantzuna" atala. Azken atal honetan, dokumentazio horren egoera erakutsiko da (baliozkotua, baztertua edo zuzentzeko zain), eta, azken bi kasuetan, arrazoia eta/edo, kasuaren arabera, azalpen bat jaso ahal izango da "Oharrak" atalean.
- "Erreklamatu/zuzendu" erlaitzan erreklamazioa eta/edo zuzenketa aurkeztu ahal izango da beharrezkoa izanez gero, Administrazioaren erantzuna berrikusi ondoren. Erlaitza horren barruan, goiko aldean, erreklamazioa eta/edo zuzenketa aurkezteko moduari buruzko jarraibideak agertuko dira.

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 7